

Herriko Artisten zerrenda digitala eta webgunea osatzeko DEIALDIA

Kultur sailak herriko sortzaile eta artisten zerrenda publiko eta eguneratua osatzeko prozesua jarri du martxan. Helburua, gure herriko sormen komunitatea ikusgarri egitea da, artista bakoitzaren profila bildu eta webgune publiko batean jarritz, herritarrek eta bisitariek gure kultur sarea hobeto ezagutu dezaten.

Horregatik, herrian bizi diren edo herriarekin lotura artistikoa duten sortzaile guztiak parte hartze-ra gonbidatzen ditugu.

Zer informazio bidali behar da?

Artista bakoitzak honako datu hauek helarazi beharko ditu:

- Argazki pertsonal bat
- Izen-abizenak
- Jaiotze data eta jaioterria
- Biografia laburra (5-10 lerro)
- Kontakturako datuak:
 - Webgunea (baldin badago)
 - Sare sozialak
 - Emaila
 - Telefono zenbakia

Informazio horrekin batera, **baimen-orria** sinatuta ere bidali beharko da, datuak eta irudiak webgunean eta proiektuarekin lotutako euskarrietan argitaratzeko baimena emateko.

Nora bidali?

Bidali dokumentuak eta baimen-orria honako helbide honetara:

maddalen.arte.gunea@gmail.com

Epea

Datuak bidaltzeko azken eguna: **2026ko martxoaren 30a**

Nori zuzendua?

Deialdia zabalik dago diziplina guztietako sortzaileentzat: Pintura, ilustrazioa, eskultura, argazki-gintza, bideoa, musika, antzerkia, dantza, diseinua, artisautza, literatura, performancea, eta beste-lako sormen adierazpenak.

Helburua

Proiektu honen bidez, gure herriko talentua mapatu, ezagutarazi eta balioan jarri nahi dugu, baita etorkizuneko ekimen kulturaletarako oinarri sendoa sortu ere.

Hondarribiko Artista eta sortzaileen zerrenda digitala

INFORMAZIOA PUBLIKATZEKO

BAIMEN-ORRIA

Nik, _____ (izen-abizenak), NAN / Identifikazio
zenbakia: _____, Helbidea: _____

Telefona: _____

Emaila: _____

honakoa adierazten dut:

1. Datu pertsonalen erabilera

Proiektu honen baitan emandako datu pertsonalak —argazki pertsonala, izen-abizenak, jaiotze data eta herria, biografia laburra, webgunea, sare sozialak, emaila eta telefono zenbakia— Hondarribiko Udaleko Kultur sailak erabiliko ditu Herriko Artisten Zerrenda eta Webgunea osatzeko eta argitaratzeko.

2. Argitaratzeko baimena

Baimena ematen dut nire datuak eta emandako informazioa webgune publiko batean, baita proiektuarekin lotutako komunikazio eta dibulgazio euskarrietan ere, argitaratzeko.

3. Erabileraren helburua

Datuak ondorengo helburuetarako erabiliko dira:

- Herriko sortzaileen zerrenda eguneratua osatzeko
- Artisten profila eta lana ikusgarri egiteko
- Herriko kultur-sarea indartzeko eta herritarrei informazioa eskaintzeko

4. Datuen zuzenketa eta kentzea

Nire datuak ikusi, zuzendu edo ezabatze eskubidea dudala jakinarazten dut, eta horretarako maddalen.arte.gunea@gmail.com helbidera jo dezakedala.

5. Baimenaren borondatezkotasuna

Baimen hau borondatezkoa da, eta edozein unetan ezeztatu dezaket, betiere idatziz jakinarazita.

Sinadura: _____

Data: ____ / ____ / ____